

## LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

**Irakurketa eta irakurzaletasuna lantzeko proposamen bat:**

**“Anbotoko señorie” album ilustratua**

**Egilea:** Miren Gentzane López Martín

**Zuzendaria:** Aintzane Etxebarria Lejarreta

**Leioan, 2016ko maiatzaren 31an**

## AURKIBIDEA

1. Egoeraren azterketa.....	4
1.1. Helburuak eta erabilitako baliabidea.....	4
1.2. Testuingurua eta parte-hartzaileak .....	5
1.3. Prozedura eta emaitzak.....	5
2. Marko teoriko eta kontzeptuala.....	8
2.1. Irakurketa kontzeptua.....	8
2.2. Irakurketa definizioa eta ezaugarriak .....	9
2.3. Irakurzaletasunaren definizioaren bila .....	9
2.3.1. Irakurketa eta gozamina/ motibazioa.....	9
2.3.2. Motibazioa eta irakurketa hipotesien baieztapenak, irakurzaletasunerako bidean ....	10
2.3.3. Irakurzaletasuna eta irakasleen papera .....	11
2.4. Irakurketa eta irakurzaletasuna Lehen Hezkuntzan lantzeko garrantzia .....	11
2.5. Irakurzaletasuna landu dituzten proiektuak eta proposamenak.....	13
2.6. Album ilustratua, irakurzaletasuna bultzatzeko baliabide didaktikoa .....	13
2.6.1. Album ilustratuaren kontzeptua .....	14
2.6.2. Album ilustratuaren ezaugarriak .....	14
2.6.2.1. Album ilustratuen formatua.....	15
2.6.2.2. Irudiaren eta testuaren arteko erlazioa.....	15
2.6.2.3. Album ilustratuaren aukera didaktikoak .....	16
3. Proposamena: “Anbotoko señoie” album ilustratua .....	16
3.1. Proposamenaren deskribapena .....	16
3.2. Proposamenaren justifikazioa .....	17
3.3. Album ilustratua eta jarduera didaktikoak sortzeko erabilitako prozedura.....	18
3.4. Edukien, helburuen eta gaitasunen definizioa .....	19
3.5. Proposamenaren atalak.....	19
3.5.1. Album ilustratua.....	19
3.5.2. Jarduera didaktikoak .....	20
3.6. Interbentzioarako proposamena .....	20
3.6.1. Plangintza.....	21
3.6.2. Kronograma.....	21
3.6.3. Baliabideak.....	22
3.7. Ebaluazioa .....	22
4. Ondorioak.....	23
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	24

## ERANSKINAK

1. eranskina. Galdetegiaren eredia.....	28
2. eranskina. Galdetegiaren emaitzak.....	33
3. eranskina. “Read on” programaren deskribapena.....	35
4. eranskina. Lockwoodek burututako proposamenak.....	36
5. eranskina. Irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzak.....	37
6. eranskina. Proposamenaren bitartez lantzen diren edukiak, helburuak eta gaitasunak.....	39
7. eranskina. “Anbotoko señoie” album ilustratua.....	42
8. eranskina. “Anbotoko señoie” album ilustratuko istorioa.....	49
9. eranskina. Proposameneko saioen ariketak eta segida.....	55
10. eranskina. Liburuko fitxa.....	60

**Irakurketa eta irakurzaletasuna lantzeko proposamen bat:****“Anbotoko señoie” album ilustratua****Miren Gentzane López Martín**

UPV/EHU

Oso ohikoa da Lehen Hezkuntzako geletan ikasleei ez zaiela irakurtzea gustatzen entzutea. Izan ere, irakurketa, irakurtzea baino haratago doan prozesua da eta horren barruan faktore anitzek eragiten dute; hala nola, irakurlearen alde aurreko jarrerak zein motibazioak ez ezik, irakurtzen dena ondo ulertzeak ere garrantzia du, hau da, irakurleak irakurtzen duen bitartean formulatzen dituen hipotesiak baieztatzeko nahiz ezeztatzeko gai izatea ezinbestekoa da. Lan hau burutzeko, irakurketa ohiturak aztertu dituzten Wigfield eta Guthrie autoreek (1997) sortutako galdetegi bat hartu da oinarritzat. Bertan irakurketaren alde ezberdinei buruz galdetu zaie sei eta zortzi urte bitarteko ikasleei eta emaitzetan oinarrituta, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko umeen irakurzaletasuna sustatzeko eta irakurketa lantzeko album ilustratuta sortu da, Euskal Mitologiako gai batean oinarrituta.

*album ilustratua, irakurzaletasuna, Euskal Mitologia, Lehen Hezkuntza, irakurketa*

Es muy común escuchar en las aulas de Educación Primaria que los alumnos no tienen gusto por la lectura. Ciertamente, la lectura es un proceso que va más allá del simple hecho de leer, y en él influyen numerosos factores, entre los cuales, destacamos la motivación y predisposición del lector, así como la correcta comprensión de lo que se lee; es decir, resulta imprescindible ser capaz de confirmar o desmentir las hipótesis formuladas por el mismo lector durante la lectura. Para la realización de este trabajo, se ha utilizado un cuestionario que estudia los hábitos de lectura realizado por los autores Wigfield y Guthrie (1997). A través de él, se han preguntado diferentes cuestiones relacionadas con la lectura a 56 alumnos de entre seis y ocho años, y basado en esas respuestas, se ha creado un álbum ilustrado con el fin de trabajar la lectura, así como la afición por ella, cuyo tema será la mitología vasca.

*álbum ilustrado, afición a la lectura, mitología vasca, educación primaria, lectura*

It is very common for primary school children to say that they do not like reading. Certainly, reading is a process that involves more than the simple action of reading the words on the page and is influenced by a number of other factors. Among the most noticeable of these are the motivation and willingness of readers, as well as the right understanding of the text; that is, the ability to validate or refute the hypothesis made by the reader along the adventure of reading. In order to perform this project, a questionnaire by Wigfield and Guthrie (1997), which examines the reading habits, has been used. Some questions about reading have been asked to 56 students aged between six and eight years old, and based on the results obtained through that, a picture book has been created so as to encourage reading in students in the first two years of primary education, through which students will learn about Basque Mythology.

*picture book, enjoyment of reading, Basque Mythology, primary education, reading*

## Sarrera

Irakurketa, Lehen Hezkuntzako ikasleen egunerokotasunean presentzia handia daukan ekintza bat da; jarduera bateko enuntziatuaren ulermenerako, matematikako buruketa bat planteatzen zaienean, jantokiko menua zein den jakin nahi dutenean, besteak beste. Baina, ba al dira horiek ikasleen interesa pizten duten jarduerak? Kasu gehienetan ez. Ikasle askok irakurketari begira duten ikuspegia, derrigorrez burutu behar duten ikaskuntza dela da. Hala ere, hori ez da ekintza honek duen benetako helburua; gozamenaren bidea edota kanala izatea baizik.

Kontua da interes, motibazio edo irakurzaletasun hori sorraraztea ez dela lan erraza. Izan ere, hainbat dira prozesu horretan eragina daukaten faktoreak; batzuk irakurlearen menpe egongo direnak (haren alde aurretiko jarrera eta motibazioa, interesak, irakurri ahala formulatzen dituen hipotesien baieztapena) eta beste batzuk, testuaren menpe egongo direnak (testuak irakurlearen interesak islatzen dituen, noraino baieztatzen dituen formulatutako hipotesiak). Hortaz, ez dago prozesu osoa kontrolatzerik, ezinezkoa baita eragile horien guztien kontrola izatea.

Lan honetan, faktore horietatik irakasleak zein irakurleak kontrola ditzaketenak abiapuntu izanik, irakurketa eta irakurzaletasuna sustatzeko proposamen baten aurkezpena egingo da. Helburu hori lortzearren, hiru izango dira jarraituko diren pauso nagusiak: lehenik eta behin, egoeraren definizioa eta azterketa egitea; bigarrenik, egoera horren oinarri teorikoak zehaztea; eta hirugarrenik, aurreko bi ataletan lortutako informazio guztiaz baliatuz, Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleentzat zuzendutako proposamen didaktiko bat osatzea.

Proposamenaren sorkuntzarako, Santurtzin kokatutako ikastetxe bateko 6-8 urte bitarteko 56 ikasleen gustuak eta irakurketa ohiturak oinarri hartuko dira, eta horretarako, galdetegi bat pasatuko zaie. Bertan aterako diren emaitza horiekin, proiektuaren euskarria eta gaia zehaztuko da, hots, album ilustratua eta Euskal Mitologia, hurrenez hurren. Ondoren, proposamenaren edukiak hautatzeko eta antolatzeke, marko teorikoan adierazitako jakintzak ez ezik, inkestetako datuak ere erabiliko dira.

## 1. Egoeraren azterketa

Hurrengo lerroetan, proposamenaren testuingurua azalduko da; bertan, ezarritako helburuak, eta horiek lortzeko erabilitako metodologia adieraziz.

### 1.1. Helburuak eta erabilitako baliabidea

Lan honen xede nagusia 6-8 urteko ikasleen irakurketa eta irakurzaletasuna sustatzeko proposamen didaktiko bat sortzea da. Helburu horrek beste hiru helburu zehazteko bidea irekitzen du. Alde batetik, adin horrekin gure gaiak jorratzeko esanguratsuak diren aukerak eta proposamenak ezagutzea. Bestetik, abagune horien artean, album ilustratuak irakurketa atsegingarria egiteko eskaintzen dituen aukerak ezagutzea. Eta amaitzeko, proposamen didaktikora bideratuta egongo diren ikasleen gustuak, pentsamenduak, jarrerak eta ohiturak ezagutzea.

Aurreko puntuan seinalatutako hirugarren helburuaren inguruan informazio eta datu aberasgarriak lortzeko nahiarekin, Wigfield and Guthrie (1997) sortutako inkestan oinarritutako galdetegi bat pasatu da 6-8 urte bitarteko 56 ikasleri. Galdera-sorta horretan, irakurtzeko motibazioan eragina izan dezaketen 6 dimentsio aztertzen dira (auto-eraginkortasuna, irakurketa saihestu, jakingura, inplikazioa, garrantzia eta onarpena, eta arlo soziala) 27 itemetan aurkeztuta (ikus 1. eranskina). Erabilitako baliabide honen bertsio originala ingelesez idatzita badago ere, euskarara itzuli da, hizkuntza aldetik, umeen ulermena errazteko.

Lehenengo dimentsioak (auto-eraginkortasuna) bakoitzak irakurketan noraino ikusten duen bere burua arrakastatsu aztertzen du. Irakurketa saihestu mailan, izenak adierazten duen legez, ikasleek irakurketa ekiditen duten ala ez arakatu nahi da. Jakingura atala, ikasleek irakurtzeko dituzten helburuak zeintzuk diren jakitera bideratuta dago, hau da, zergatik eta zertarako irakurtzen duten jakitea. Honekin lotuta, *inplikazioa*, garrantzia eta onarpena nahiz arlo soziala kategorietan irakurketari ematen zaion balorazioa aztertzen da bai indibidualki bai ikasleen ingurune sozialari begira (Baker & Wigfield, 1999: 2-3). Halaber, galdetegi horrekin batera, ikasleek dituzten irakurtzeko gustuak jakiteko galdera bat planteatu da. Horretan, 14 gai ezberdin agertzen dira eta ikasleek gustuko dituztenak markatu dituzte. Hala ere, esan beharra dago, bakarrik 2. mailako ikasleei (27 ikasle) egin zaiela. Izan ere, lehenengo mailakoak irakurketan hasiberriak dira eta oraindik ere ez dute liburuak gaika taldekatzeko gaitasuna garatu.

## 1.2. Testuingurua eta parte-hartzaileak

Ikerketaren lagina Santurtzin kokatutako auzo erdaldun bateko itunpeko ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleekin osatu da, 1. mailako 28 ikasle eta 2. mailako 27 ikaslerekin alegia. Ikastetxe hau itunpekoa da, eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza daude baita hartzaindegi zerbitzua ere.

Euskararen trataera hobetzeko nahian, eskola ULIBARRI<sup>1</sup> eta NOLEGA<sup>2</sup> proiektuetan parte hartzen hasiberri da (2014-2015 ikasturteik). Horrez gain, eta beti ere eskolako euskara maila eta erabilera sustatzeko xedearekin, “*Proyecto de formación e innovación didáctica de las lenguas*” izeneko proiektuan murgilduta daude. Izan ere, azken ebaluazio diagnostikoko probetan, ikastetxeak gaitasun linguistikoaren inguruan hobetzeko beharra agertu zen, eta proiektu honek hori lantzea du helburu; hau da, euskara hizkuntzako ahozko zein idatzizko ulermenaren inguruko emaitzak hobetzea, alegia.

Irakurketaren lanketari dagokionez, inkestatutako umeak 5 urterekin hasi ziren irakurketa lantzen. Hortaz, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan daudenak, oraindik ere irakurketa mekanikoa lantzen dabilta. Bigarren mailakoek, ordea, irakurketa mekanikoa egiten dute eta jadanik, irakurtzen dutena ulertzeko gai dira. Hala ere, kontuan hartzekoa ere bada, gaztelaniaz euskaraz baino hobeto irakurtzen dutela, eta gaztelaniaz irakurtzeko joera dutela.

## 1.3. Prozedura eta emaitzak

Aurretik aipatu bezala, ikasleei irakurketa ohiturak neurtzen dituen inkesta bat pasatu zaie. Galdetegia geletan bertan burutu da eta ordu bateko iraupena izan du. Halaber, item bakoitzaren esanahia ulertua izan dadin, esaldiak banan-banan irakurri zaizkie eta bakoitzak bere galdetegian erantzuna idatzi du. Bi arrazoi nagusi daude proposamena zentro honetara bideratzeko:

---

<sup>1</sup> ULIBARRI proiektua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saitetik datorren programa bat da, eta euskararen normalizazioa bultzatzea du helburu (Eusko Jaurlaritza, 2004).

<sup>2</sup> NOLEGA proiektua, berriz, euskararen erabilpenarekin lotuta dago. Izan ere, 1983ko Abuztuaren 1eko Aginduko 12. atalean zehazten den bezala, Hezkuntza eta Kultura Sailak neurriak hartu behar ditu euskararen erabilpena eskolan bermatzeko, gela barruko zein gelatik kanpoko ekintzetan (Eusko Jaurlaritza, 2004).

Lehenengo arrazoia, proposamena testuinguruan kokatzeko premia da. Ikastetxe honek datuak biltzeko erraztasunak eskaintzeaz gain, proiektuarekiko interesa aurkeztu du eta oso kolaboratzailea aurkeztu da.

Bigarren arrazoia, euskararen presentzia eta erabilera murriztuan topa daiteke. Errealitate hau, ikastetxe mailan ez ezik, auzoan ere ematen da. Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean argitaratutako mapa soziolinguistikotik lortutako emaitzetan, Santurtzi, Bilbo Handia izeneko eskualdean kokatuta dago eta, % 23,1 biztanleria euskalduna dela ondoriozta daiteke. Beste hitzetan esanda, 191.127, 552 biztanle, hain zuzen ere.

Hortaz, prozedura nolakoa izan den adierazirik, jarraian inkestaren 2. eranskinetako tauletan adierazten diren emaitzak aztertu eta gero lortu diren ondorioen berri emango da. Horretarako, esanguratsua den informazio eta datuak dimentsioka aurkeztuko dira.

Auto-eraginkortasuna ataleko lehenengo eta bigarren itemetan ateratako emaitzek adierazten dute inkestatutako ikasleek bere buruak nahiko arrakastatsu ikusten dituztela; izan ere, gaur egun irakurle onak direla uste badute ere, % 85,7k datorren ikasturtean hobeto irakurriko duela adierazi du.

Gainera, ikasleek irakurketa prozesu hori helburu batekin gauzatzen dutela ondoriozta daiteke; esate baterako, % 89,3k, irakurketa gauza berriak ikasteko bide eraginkorra dela azaldu du. Areago, irakurketa haien kuriositatea, jakingura eta ezagutzak zabaltzeko baliabideetat hartzen dute, eta hori egitea % 75ri gustatzen zaio. Ildo beretik, 8. itemak irakasleak zerbait interesgarria azaltzen duenean ikasleek horren inguruko informazio gehiago irakurtzea nahi duten ala ez aztertzen du, eta ia % 70k baietz erantzun duela. Hortaz, datu horrek, irakasleak ikasleak irakurketan zein irakurzaletasunean murgiltzeko eragile determinatzailea izan daitekeelako ondorioa eramaten gaitu.

Hala ere, irakurketak duen eraginkortasun hori galdu egiten da bigarren dimentsioak (irakurketa saihestu) kontsideratzen dituen aspektuen emaitzetan erreparatzen bada. Izan ere, inkestatuko bataz besteko % 55,82k irakurketan zehar trabak agertzen direnean jarduera alboratzen saiatzen direla islatu du. Oztopo horien artean, hitz zailak, hiztegi galderak, hasieratik euren interesa pizten ez dituzten ipuinak, pertsonaia askoren presentzia aurki daitezke, besteak beste.

Modu berean, 2. taulak erakusten du irakurketa saihesten dituzten oztopoen presentziak ikasleen inplikazioa kaltetzea dakarrela. Proposamen didaktikoaren sorkuntzari begira, jakin beharreko datuak ditugu hauek. Adibidez, ikasleen % 66k gutxi gorabehera istorioaren mamian sartzeko erraztasuna erakusten du; ez soilik istorioaren irudiak imajinatuz (% 66,1), baizik eta bertan agertzen diren pertsonaiekin identifikatuz eta harremanak ezarriz (% 60,7).

Emaitzen azterketarekin amaitzen joateko, ikasleek beraiek zein ikasleen familiak eta ingurune sozialak irakurketari ematen dioten garrantzia eta balorazioa zein den ezagutu beharra dago, eta horretarako, 4. taulan agertzen diren alderdien emaitzak hartuko dira abiapuntutzat. Hasteko, % 76,8k ondo irakurtzea ekintza garrantzitsutzat hartzen du. Garrantzi horren barruan, eragile sozial ezberdinen presentzia ageri da, hots, familia eta irakasleak. Izan ere, ikasle hauentzat bai familiaren bai irakasleen onarpena eta laguntza ezinbestekoa da haiek aurrera egin dezaten, eta horren adibide, inkestaturiko % 62,5k gurasoei eta % 51,8k anai-arrebei irakurtzen dietela dugu. Hala ere, orain arte adierazitakoa ikasle bakoitzaren motibazio intrintsekoarekin lotuta dago, eta 20., 22. eta 23. itemek kanpo motibazioak ere eragina duela adierazten dute. Izan ere, 43 ikaslek euren notak hobetzeko irakurtzen dute eta 31k behartuta sentitzen direlako.

Bestalde, inkestatuen gustuak ezagutzeko planteatu den galderaren emaitzak aztertuz, gaien lehentasunen ordena era honetan geratu da: misteriozko liburuak (23 puntu); fantasiako liburuak (21 puntu); historiazko liburuak (21 puntu); abenturazko liburuak (20 puntu); animaliazko liburuak (20 puntu); beldurrezko liburuak (20 puntu); umorezko liburuak (19 puntu); Euskal Mitologiari buruzko liburuak (17 puntu); familiako liburuak (17 puntu); bidaiako liburuak (16 puntu); egunerokoak (16 puntu); kirolezko liburuak (15 puntu); musikazko liburuak (15 puntu); amodiozko liburuak (11 puntu).

Hortaz, gai bakoitzak jasotako emaitza kontuan izanda, bi ondorio hauetara hel gaitzke: alde batetik, gai guztiek, amodioa izan ezik, 27 puntu posibletik 15 puntu baino gehiago lortu dute. Hortaz, proposamen didaktikoari begira, amodioa baztertuta geratzen da. Eta bestetik, lehenengo hiru gaiak (misteriozko liburuak, fantasiako liburuak eta historiazko liburuak), emaitza antzekoak lortu dituzte (23 puntu, 21 puntu eta 21 puntu, hurrenez hurren. Emaitza hauen lorpenak, proposamena egiterako orduan, gai hirurak kontuan hartu behar direla suposatzen du.



Ondorioz, geroago aurkeztuko den proposamen didaktikoaren gaia misterioan, fantasian eta historian oinarrituta egongo da, horiek izan baitira ikasleek agertutako gustu adierazgarrienak % 41,07 (misterioa) eta % 37,5rekin (fantasia eta historia), alegia.

## **2. Marko teoriko eta kontzeptuala**

Lanaren atal honetan, irakurketa eta irakurzaletasuna lantzeko ezagutu eta kontuan izan beharreko hainbat alderdi aurkeztu, eta horien arteko loturak egin nahi dira. Izan ere, irakurzaletasunak lotura zuzena dauka irakurketa zein irakurketa gaitasunarekin, baita prozesu horietan irakurleak aurkezten duen motibazioarekin ere.

Matak (2008:130) adierazten duen legez, badaude irakurketa aurretik eragina daukaten aurrekariak, ulermena eragotzi edo laguntzen dutenak, alegia. Horien artean, irakurlearen asmoak, itxaropenak, interesak eta irakurketarekiko estimuak bereiz daitezke. Azken finean, ez dira emaitza berberak lortzen kuriositateagatik ,eta jakinahiagatik edota irakasleak aginduta irakurtzen denean.

### **2.1. Irakurketa kontzeptua**

Jakin badakigu inor ez dela jaiotzen irakurtzen jakiten. Esan daiteke irakurketa, eskolaurrean hasita goi mailako ikasketetan jarraitu arte, derrigorrez egin beharreko ikaskuntza dela (Moreno, 2007:81). Ekintza honek, ikaskuntza garrantzitsuak egiteko balio du: hezteko, irakasteko eta jostatzeko; ezkutatuta dauden interesak agertarazteko, imajinazioa berpizteko; kritikotasuna esnarazteko; eta sentsibilitatea pizteko, alegia (Moreno, 2007:89). Ildo beretik jarraituz, Morenok (2007) Kant-en hitzak erabiliz, irakurketaren balioa laburbiltzen du, horren bitartez, gizakia, eraldatu egiten dela esanez; hau da, pertsona bera izaten jarraitzen dugu gara, baina ez gauza bera izaten.

Laburbilduz, irakurketak duen funtzioa pertsonak haztea eta hezte da, betiere bizitza gozamenaz eta poztasunaz hornituz. Izan ere, sortarazitako gozamen eta poztasun horren ondorioz, munduan dauden gauza ederrak ikusteko ahalmena piztuko da (Bryant, 1995:20). Eta, aldi berean, edertasun sentimendu hori gizakiok gauza berriak aurkitzera bultzatzen gaituen elementu bihurtuko da (Bryant,1995:20). Alabaina, gozamen hori lortzeko, irakurleak paper aktiboa izan behar du; eta ideia honetatik dator, hain zuzen ere, irakurlea testuarenganako motibazioa eta interesa sorrarazteko beharra (Jiménez, Gómez, Aguado eta Ballesteros, 2001:164).

## **2.2. Irakurketa definizioa eta ezaugarriak**

Irakurzaletasuna eta irakurketa trebetasuna gaitasuna elkar loturik agertzen diren prozesuak dira. Modu honetan, ez da posible irakurketarekin gozatzea baldin eta irakurketa trebetasuna ona ez bada, betiere kontuan izanik gozamina ez dela soilik ondo irakurtzen jakitea (Jiménez et.al., 2001:164). Hortaz, irakurketa trebetasuna kontzeptu oso zabala den heinean, askotariko definizioak topa daitezke, bakoitzean aspektu ezberdinak nabarmenduz. Trabassok irakurketa trebetasunaren definizio bat ematen du, hurrengo hau planteatuz:

[...] la comprensión lectora como el grupo de procesos que consisten en una serie de operaciones mentales que procesan la información lingüística desde que el sujeto la recibe hasta que toma una decisión referida a tal información. Durante el proceso se codifica la información en una representación interna, se compara esta representación con otras previas y la comprensión ocurre cuando se emparejan representaciones. Se trata de un proceso de codificar, comparar y emitir respuesta o reconocer. (Trabasso, Jiménez et.al. aipatua, 2001).

OCDE-k (d.g.) ematen duen definizioaren arabera, irakurketa trebetasuna [...] idatzita dauden testuak ulertzeko, erabiltzeko, horien gainean hausnartzeko eta interesatzeko trebetasuna da, betiere bakoitzak ezartzen dituen helburuak lortzeko, ezagutza eta potentzial pertsonalak garatzeko, eta gizartean parte hartu ahal izateko (OCDE, d.g.).

Azkenik, Durán (2008:4) aurreko bi definizioen edukiak uztartzen saiatzen da eta horrela deskribatzen du irakurketa gaitasuna: irakurketa trebetasuna, esanahiaren eta adierazleen arteko elkarketa sortzean datza. Horrela, irakurtzea ez da soilik alfabetiko-zeinuak kodifikatzea, baizik eta denetarikoz zeinuak interpretatzea ere, esate baterako, bisualak, fonikoak edota tonukoak.

## **2.3. Irakurzaletasunaren definizioaren bila**

Atal honetan, irakurzaletasunean eragina duten faktore horiek azalduko dira, eta haien artean dauden loturak adierazi ere.

### **2.3.1. Irakurketa eta gozamina/ motibazioa**

Irakurketa eta gozamina faktore interdependenteak dira, hau da, bigarrena ez egoteak lehenengoaren porrota dakar (Moreno, 2007:84). Interdependentzia hori lau alderdien uztarketatik sortua da, hots, irakurlea, testua (obra), irakurketa ekintzaren bitartekaria, eta irakurlearen eta testuaren bateragarritasuna/bateraezintasuna. Motibazioaren eraginkortasuna irakurleak dituen interesen eta irakurri ahala ezartzen dituen hipotesien menpe badago ere, testuak eta bitartekariak ere eragina ere izango dute. Azken batean,

testuaren bateragarritasun mailaren arabera irakurlearen interesak islatu eta hipotesiak baieztatuko dira. Baina, aldi berean, testu horren hautaketaren arduraduna bitartekaria izango da (Mendoza, 2006: 15-16).

Halaber, eta orain arte azaldu dena kontuan hartuz, argi dago testuak beti irakurle baten presentzia behar duela, baina aldi berean, irakurleak testuak duen bizitasuna topatu behar du irakurzaletasuna lortzearren. Beraz, irakurketaren gozamenak izaera interaktiboa izango du, eta testuaren eta irakurlearen artean dagoen bateratzearen bidez lortuko da. Horrela, interakzio hori suerta dadin, ezinbestekoa izango da eskaintzen den testua irakurlearen interesetara moldatuta egotea, irakurketa aurkikuntzaren bidea bihurtuz (Mendoza, 2006: 12; Moreno, 2007:85).

Modu berean, idatzizko ulermenak bere lekua izango du irakurzaletasuna lortzeko bidean. Matak (2008:133-134) hurrengo esaten du honen inguruan: “lejos de considerarlas cuestiones antagónicas, la animación a la lectura y la comprensión lectora se complementan”. Arrazoi honengatik, autoreak gehitu egiten du irakurzaletasunak eta idatzizko ulermenak elkarrekiko izaera dutela; izan ere, lehenengoak testu bat ulertzeko pizgarria/estimulua izan beharko luke, eta bigarrenak irakurzaletasuna sustatzen du.

### **2.3.2. Motibazioa eta irakurketa hipotesien baieztapenak, irakurzaletasunerako bidean**

Aurreko puntuan aztertu den bezala, irakurketa alderdi ezberdinak hartzen dituen ekintza da. Hala ere, ez dago alderdi horiek guztiak kontrolatzerik. Izan ere, badira batzuk testuan erantsita datozenak; beste batzuk, irakurlearen menpe daudenak; bai testutik bai irakurletik at daudenak ere. Mendozak (2006) eta Matak (2008) ekarpen esanguratsua egiten digute irakurzaletasunak irakurlearen motibazioarekin zein irakurri ahala egiten dituen hipotesien baieztapenarekin duen loturaren inguruan.

Matak (2008:130) adierazten du irakurlearen motibazioak, helburuek, itxaropenek eta estimuak garrantzi handiko aspektuak direla irakurketa eta ulermen ona izateko. Motibazioa eta itxaropenak –hipotesien bidez formulatzen dituenak- irakurlearen eskutik datozen alderdiak badira ere, testuaren menpe ere badaude (Mendoza, 2006:11). Motibazioa, irakurleak testuarekin lehenengo aldiz topo egiterakoan formulatzen dituen alde aurretiko hipotesien emaitza da; bertan aurkituko dena aurreikusten baitu –testuak eskain diezaiokeena pentsatuz-, eta horren arabera kokatzen baitu bere burua (Mendoza,

2006: 11-12). Halaber, irakurketa hasten den momentutik egin diren hipotesi horien egiaztapenak beharrezkoak dira motibazioak aurrera egin ahal izateko. Izan ere, baieztapen horiei esker, irakurleak testuarekin aurrera egiten du eta hipotesi berriak formulatzen ditu, emaitza atsegin bat lortzeko nahian (Mendoza, 2006: 17).

Laburbilduz, orain arte adierazitako guztia aintzat harturik, irakurzaletasuna, irakurleak testu baten edukietara/esanahiara/interpretaziora heltzeko daukan interes pertsonal gisa definitu daiteke (Mendoza, 2006:18). Autore honek adierazten duen legez, baliogarria den bakarra testua eta irakurlea momentu konkretu batean eta baldintza zehatz batzuetan topo egitea da. Eta bertan garatzen den topaketan, zeinetan irakurlearen hipotesiak baieztatzen diren eta bere interesak agertzen diren, irakurketaren jarraipena bermatuko da irakurzaletasunerako bidean (Mendoza, 2006: 13).

### **2.3.3. Irakurzaletasuna eta irakasleen papera**

Orain arte adierazitako guztiaren konplexutasuna dator irakasle gisa planteatzen diren testuak ikasleen/irakurleen interesekin, beharrekin edota hipotesiekin bat ez datozenean. Orduan hasi egiten da irakasleen zeregina, hots, ikasleak duen interes/erakargarritasun ez hori motibazio bihurtzeko zein esku-hartze mota diseinatu pentsatzea. Alabaina, hasiera batean ageri den motibazio eta interes falta hori irakurketan murgiltzeko arrazoi bilaka daiteke, aitzakia horren bitartez liburuak eskaintzen duen xarmarekin topo egin daiteke eta (Mendoza 2006:19). Hortaz, kasu honetan, irakaslearen zeregina irakurlearen eta testuaren arteko lehenengo kontaktua erakargarri bihurtzea izango da, eta modu honetan, irakurzaletasuna kanpotik lortuko da, hots, bitartekariak proposatzen dituen jarduera konkretuen bidez. Aurreko guztia lortzeko, Dacal-ek (1998) irakurzaletasuna bultzatzeko nahian irakasleak bete behar zituen ezaugarriak eta ahalmenak aipatu zituen. Horren arabera, irakasleak:

- Hurbiltasun handia aurkeztu behar du bere esperientziak ez ezik, ikasleen esperientziak ere alaitasunez konpartitzeko.
- Irakurleekin batera jolasteko, sortzeko eta imajinatzeko prest egon behar du.
- Irakurketak sortarazten duen gozamina eta atsegina erakutsi behar du, jarrera aktiboa eta arretatsua erakutsiz.

### **2.4. Irakurketa eta irakurzaletasuna Lehen Hezkuntzan lantzeko garrantzia**

Irakurketa eta irakurzaletasuna Lehen Hezkuntzan lantzeko beharra ulertzeko, Haur Literaturak kontu honetan betetzen duen paperari erreparatu beharra dago; honek erabat

eragin baitio motibazioari eta irakurleak irakurri ahala eraikitzen dituen hipotesiei (Mendoza, 2006:16). Haur Literaturak duen eragin hori herrialdeko hezkuntza legedian ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko legedian ere agertzen da. Horrela, irakurzaletasunak eta irakurketak hezkuntza legedian duten presentzia hurrengo lerroetan laburbil daiteke:

- Heziberri 2020 planaren barneko 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15) legeak honakoa markatzen du:

Irteera-profilari dagokionez, ikasleak bizitzako esparru guztietan euskaraz zein gaztelaniaz ahoz zein idatziz modu egoki eta eraginkorren komunikatzeko gai izatea da helburua, [...] Literatura-hezkuntza bat ere eskuratu behar du, bere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko. Elebitasuna bermatzea da euskal eskolaren erronketako bat, baina pertsona eleaniztunak ere hezi behar ditu, [...]. (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015, 4).

Modu berean, Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia garatzeko nahian ezartzen diren helburu orokorren artean, 4. helburuak literaturaz gozatzen ikastea azpimarratzen du, genero ezberdinetako literatura-testuak irakurriz eta entzunez (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015, 152).

Halaber, dekretu bereko Lehen Hezkuntzako *1.1.– EUSKARA ETA LITERATURA, ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA* arloko 4. blokea literatura-hezkuntzari zuzenduta dago eta horren xede nagusia era honetan aurkezten dute: “[...] lehen zikloan, gure ikasleak irakurtzen ohitu daitezten saiatzea; [...], beren irakurzaletasuna sendotu dezaten ahalegintzea, horrela literaturaz gozatzen ikas dezaten. Etapa honetan, beste edozeinetan baino gehiago, literatura gozamen-iturritzat hartzen da: hizkuntzaz eta hizkuntza-baliabideez gozatzeko bidetzat, alegia” (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015, 153).

- Hezkuntzako Lege Organikoa 2/2006, maiatzaren 3koa, 14. artikuluan zehazten den legez, Hezkuntza administrazioei dagokie irakurketari eta idazketari lehenengo hurbilpena sustatzea. Irakurtzeko ohitura hori lortzeko, 19. artikuluan eguneroko irakurketa lantzeari denbora tarte bat eskainiko zaiola adierazten da (Jefatura del Estado, 2006).
- Hezkuntzako Lege Organikoa 2/2006, maiatzaren 3 koa, legeko 16.artikuluak eta Errege Dekretuak 126/2014, otsailaren 28 koak, legeko 6. artikulua dioenez, “La finalidad de la Educación Primaria es facilitar a los alumnos y alumnas los aprendizajes de la expresión y comprensión oral, la lectura, la escritura, [...] con el

fin de garantizar una formación integral que contribuya al pleno desarrollo de la personalidad de los alumnos y alumnas [...]” (Jefatura del Estado, 2006).

- Azkenik, urtarrilaren 21eko ECD/65/2015 aginduak dionez, legearen arabera, gaitasun linguistikoa sozializaziorako eta hezkuntza esperientziarako funtsezko tresna da, eta zentzu honetan, aipagarria da irakurketa aintzakotzat hartzea gaitasun linguistikoaren eta ikaskuntzaren garapena bermatzeko. Horretarako, irakasleek irakurleen interesetara eta gaitasunetara egokitutako haur literaturazko obrak aurkezten dituzte (Ministerio de Educación, Cultura y Deporte 2015).

## 2.5. Irakurzaletasuna landu dituzten proiektuak eta proposamenak

Aurreko puntuetan jadanik agertu da irakurzaletasunak eta irakurketak hezkuntzan duen presentzia eta garrantzia. Eskoletan gero eta ugariagoak dira irakurzaletasunaren zein irakurketaren inguruan burutzen diren proiektuak eta ekintzak. Hala ere, horien bidez lortu nahi diren helburuak denetarikoak izan daitezke. Adibidez, “*Read On*”<sup>3</sup> programa eskoziarrak irakurketa gaitasuna hobetzea du helburu, eta horretarako bikoteka burutzen diren dinamikak proposatzen ditu.

Era berean, irakurzaletasuna sustatzeko ez ezik, album ilustratuak integratzeko ere diseinatu dituzten proposamenak burutzen dira. Lockwood-ek (2011) bi proposamen<sup>4</sup> ezberdin burutu zituen Ingalaterrako eskola ezberdinetan. Batean, irakurketa modu interdiziplinarrean landu zuen Arte Hezkuntza arloarekin lotuz. Bestean, ordea, irakurketa Gaztelaniazko ikasgaien edukiekin uztartu zuen. Amaitzeko, proiektuak ez diren hainbat eta hainbat ekintza<sup>5</sup> proposa daitezke. Horien artean, “ipuin kontalaria”, “irakurle onaren txartela eta irakurketa txartelak”, “motxila bidaiaria” edota “album ilustratua” nabarmen daitezke.

## 2.6. Album ilustratua, irakurzaletasuna bultzatzeko baliabide didaktikoa

Hurrengo paragrafoetan, liburu mota hau zertan datzan, aurkezten dituen ezaugarriak eta didaktikoki eskaintzen dituen abaguneak azaltzen dira.

<sup>3</sup> Kantsultatu 3. eranskinean “*Read On*” programa zertan datzan; hau da, zeintzuk diren helburuak, erabiltzen duen metodologia, lortu diren emaitzak, eta bestelako aspektuak.

<sup>4</sup> 4. eranskinean, Lockwood-ek (2011) burutu zituen proposamenei buruzko informazioa kontsulta daiteke (helburuak, metodologia, emaitzak, besteak beste).

<sup>5</sup> “Ipuin kontalaria”, “irakurle onaren txartela eta irakurketa txartelak”, “motxila bidaiaria” edota “album ilustratua” ekintzen deskribapena ikusteko, ikusi 5. eranskina.

### 2.6.1. Album ilustratuaren kontzeptua

Album ilustratuaren kontzeptua ulertzeko, komeni da ideia hau nondik sortu zen azaltzea. Ya Jan Amos Comenio izeneko teologo, filosofo eta pedagogoarenekin eskutik agertu zen, *Orbis sensualium pictus*<sup>6</sup> (1658) obrarekin. Denboraren poderioz, obra honek eragin handia izan du umeen hezkuntzan, gelan ikus-entzunezko tekniken erabileraren aitzindaria izanik (Wikipedia, 2014). Comenioren helburua “gauzak hitzen ondoan, eta hitzak gauzen ondoan ipintzea” zen, umeen gaitasun naturaletan eta jolasean oinarri izanik (Jiménez et al., 2001: 27). Beste hitzetan esanda, Comeniok ilustrazioetan oinarritutako munduari buruzko begiradak eskaini nahi zizkien umei (Isaza, d.g.).

Autore askok diotenari eutsiz, ez da erraza album ilustratu bat zer den hitzekin adieraztea. Roserok (2010:5) modu honetan definitzen du: liburu mota bat da zeinetan irudiaren eta testuaren esanahia, biek eskaintzen duten lengoaiaren erlaziotik eta uztarketatik lortzen den.

Booker-ek 2007. urtean argitaratutako artikuluan, Wolfenbargerrek eta Sipek (2007) emandako definizioa hartzen du album ilustratuen kontzeptua aurkezteko: “Picturebooks represent a unique visual and literacy artform that engages young readers and older readers in many levels of learning and pleasure”(Wolfenbarger & Sipe, 2007).

Hala ere, esan liteke aurreko bi definizio horiek osagarriak direla, eta biak uztartuz gero, Duránek (2008:2) aurkezten duen definiziora hel daiteke:

El álbum sería una forma de expresión que presenta una interacción entre textos (que pueden ser subyacentes) e imágenes (especialmente preponderantes) en el seno de un soporte libro, caracterizado por su libre organización de la doble página, la diversidad de sus realizaciones materiales y la sucesión fluida y coherente de sus páginas. (Van der Linden, 2006).

### 2.6.2. Album ilustratuaren ezaugarriak

Album ilustratu bateko ezaugarriak aztertu nahi direnean, aspektu batzuei erreparatu behar diegu: albumaren formatua, ilustrazioaren garrantzia eta irudiaren eta testuaren artean dagoen lotura, besteak beste.

---

<sup>6</sup> Liburu hori umeentzat zuzendutako entziklopedia bat da, eta historiako lehenengo album ilustratutzat hartu ohi da. Bertan, testua laguntzen eta aberasten duten gai ezberdinetako irudiak agertzen dira.

### 2.6.2.1. Album ilustratuen formatua

Album ilustratuen formatua bi osagai araberakoa da, hots, testua eta ilustrazioak. Jiménez et al. (2001); Colomer (2007); eta Rosero (2010) autoreek honi buruzko ekarpenak egiten dizkigute.

Testuari dagokionez, hizkiaren tamainak irakurleen adinaren araberakoa izan behar du (zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta tamaina handiagoa erabiliko da), eta horren kokapena, autoreak jarraitu nahi duen erritmoaren araberakoa izango da (Colomer, 2007). Ilustrazioei erreparatuz, hainbat dira aintzakotzat hartu beharreko aspektuak. Horien artean, hurrengoak bereizten dira:

- Ilustrazioen atzeko aldea, hots, fondoak, zuriz uzteko joera dago. Hala ere, fondoari kolorea ematen zaionean bilatzen den efektua apainketa besterik ez da (Colomer, 2007).
- Kolorea eta argia adierazpenerako eta emozioak azalarazteko baliabidetzat hartzen dira (Jiménez et al., 2001:28).
- Ilustrazioek istorioa kontatu behar dute, hau da, istorioaren parte izan behar dute. Horretarako, teknika ezberdinak erabil daitezke; hala nola, collage, argazkiak, grabatuak, eta abar. (Jiménez et al., 2001:28-30).

Labur esanda, ilustrazioak orrialde osoa hartzen du eta testua, bi orrialdeetatik batean agertzen da, bi esalditan sinplifikatuz (Rosero, 2010:5).

### 2.6.2.2. Irudiaren eta testuaren arteko erlazioa

Irudiaren garrantzia aldatu egin da denboraren poderioz. Hasiara batean, irudia testua apaintzen zuen elementutzat hartu omen zen, testuaren esanahia eta ulermena laguntzen zuena. Hala ere, gaur egun, irudiaren funtzioa irakurlea harritzea da, inpaktu bisuala lortu nahian. Hain da handia sorrarazi nahi duen hunkipena, ezen kasu askotan autonomo bilakatu den -testuarekin mantendu ohi zuen erlazioari dagokionez- eta horren emaitza dugu album ilustratua (Jiménez et al., 2001:28; Booker, 2012:1).

Album ilustratuaren garrantzia elkarri laguntzen dioten irudiaren eta testuaren erabileran datza, forma ezberdinetan osatzen direnak eta esanahi maila desberdinak ahalbidetzen dituenak (Rosero, 2010:5). Izarak (d.g.) dionez, album ilustratu bateko funtzionamendu egokirako ezinbestekoa da testuaren eta irudiaren artean ezartzen den erlazio hori. Modu honetan, irudiak hiru funtzio nagusi beteko ditu (Izara, d.g.: 4-5):



- Testuko zentzuaren eraikuntzarako lagungarria izango da, horren ulermena aberasten baitu.
- Irakurketa bikoitza egiteko abagunea erraztuko du, eta horren ondorioz, irakurlearen autonomiaren garapenari lagunduko dio, bera baita istorioko esanahiaren eraikuntzaren protagonista.
- Irakurleak munduan daukan irudia eraikiko du, baita honi inguratzen duen munduko ezagutzak ere.

### **2.6.2.3. Album ilustratuaren aukera didaktikoak**

Album ilustratuak irakurketan sartu berri diren irakurleentzako erraztasunak eskaintzen dituzte, irudien presentziak testuan pertsonaien, egoeren eta eszenatokien deskribapenak ekiditen baititu (Jiménez et al., 2001:29).

Horrez gain, testuak interpretatzeko eta ebaluatzeko abaguneak eskaintzen dizkiete ikasleei, baita haiek euren testuak eraikitzeke aukera ere. Azken batean, liburu hauen bitartez, irakurleak idazlearen mezuaren interpretazioa ez ezik, bere interpretazioa ere gauzatu dezake (Booker, 2012:1). Horrela, literatura ulermena lantzeaz gain, testuak alderatzeko gaitasunak garatzen dira (Booker, 2012:3).

Labur esanda, album ilustratuen bidez irakurleak aktiboki parte hartzea eta istorioaren eraikuntzaren protagonista izatea lortu nahi da, betiere testuari eta irudiei buruzko irudimenak eta interpretazioak eginez (Isaza, d.g.). Ondorioz, Duranek (2008) adierazten duenez, album ilustratuetako orrialdeetan efektu kognitibo batzuk eragiten dira, ikaskuntza testuala, aritmetikoa, espaziala eta tenporala indartzen dituztenak.

## **3. Proposamena: “Anbotoko señoie” album ilustratua**

Ondoren, proposamenaren nondik norakoak azalduko dira: proposamenaren zergatia, erabilitako prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza curriculumarekin duen lotura, plangintza, erabilitako baliabideak, eta ebaluazioa, hain zuzen ere.

### **3.1. Proposamenaren deskribapena**

Hurrengo lerroetan, irakurzaletasuna album ilustratuen bitartez sustatzeko proposamen bat aurkeztuko da. Proposamen honen bidez lortu nahi diren xede nagusiak honakoak dira:

- Irakurketarekiko interesa piztea; hau da, ikasleei irakurketa ekintza atsegingarria dela helaraztea eta eurek esperientzia hori bizi izatea.
- Ikasleen irakurketa gaitasuna eta ahozko gaitasuna hobetzea.
- Euskal Herriko ondarea osatzen duen euskal mitologiako Anbotoko señorie (Anbotoko Mari) pertsonaia ezagutzea, eta horri buruzko ezagutzak zabaltzea.

### 3.2. Proposamenaren justifikazioa

Proposamen honen beharrezana inkestaturiko ikasleek irakurketa lantzean aurkezten dituzten zailtasunetatik dator. Zailtasun horiek ez dira soilik kognitiboak izaten; askotan, inguruneak sortzen ditu, baita ikasleen motibazioak ere.

Gure egoeraren kasuan, irakurketa oztopatzen duten alderdiak testuinguruarekin daude lotuta nagusiki. Izan ere, “1. Egoeraren azterketa” puntuan agertu den bezala, ikastetxe hau eremu erdaldun batean kokatuta dago, eta horrek suposatzen duena gehienen ama hizkuntza gaztelania izatea da. Hortaz, hizkuntzari begira, eskolako eta eskolaz kanpoko errealitateak ez datoz bat; ikasgaiak euskaraz jorratzen baitituzte baina ikasleek gaztelaniaz egiten dute gehienetan. Horren ondorioz, ikasleentzat, irakurketa asteko 30 orduz irauten duen erronka da, behararen menpe burutzen dena, gozamenari lekua kenduz. Beraz, proposamen honen bitartez, ikasleei irakurketa ekintza atsegina izan daitekeela helarazi nahi zaie, baita eurek esperimentatu dezaketela ere.

Aurretik adierazitako guztia erdiesteko nahian, album ilustratu baten sorkuntza burutuko da. Haren bitartez, ikasleek galdetegieta aurkeztu dituzten gustuak eta irakurketa ohiturak islatu nahi izan dira, baita Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza curriculumak markatzen dituen edukietatik batzuk jorratu ere. Izan ere, baliabide honek ikasleen beharretara egokitzen diren abagune ezberdinak eskaintzen dizkigu. Horien artean, hurrengo hauek nabarmen daitezke: alde batetik, irudiei funtzionaltasun bat ematen zaie, hots, hitzekin idatzitako istorioa kontatzeko zeregina. Eta bestetik, irakurleak istorioaren eraikuntzaren protagonista bihurtzen dira, paper aktiboa jokatuz. Hori guztia lagungarri eta onuragarri suerta dakieke irakurketan hasi berri diren ikasle hauei, irudiak izango baitituzte oinarri istorioa osotasunean ulertzeko. Azken batean, album ilustratuetan, ilustrazioen presentzia testuarena baino askoz ere garrantzitsuagoa izan omen da. Horrez gain, edozein gai edota eduki jorratzeko aukera eskaintzen duenez gero, hezkuntza curriculumeko gai ezberdinak lantzeko balio izango du.

Halaber, ezin dugu ahaztu hezkuntza legeek esaten dutena aintzat hartzea. Horien arabera, ikasleek literatura-hezkuntza bat jaso behar dute, gozamina xede duena, eta horretarako, ikasleak irakurtzen ohitu behar ditugu. Izan ere, horren bidez lantzen den irakurketa gaitasun linguistikoa garatzeko funtsezko alderdia izango da, horren garapena dakarren ondorio positiboekin.

### **3.3. Album ilustratua eta jarduera didaktikoak sortzeko erabilitako prozedura**

Proposamenaren sorkuntzaren prozedurak bi atal ezberdin izan ditu: alde batetik, album ilustratua sortzea, eta bestetik, proposamen didaktikoa burutzea.

Lehenengoari dagokionez, inkestatutako ikasleen gustuak zeintzuk diren jakitea izan da burututako lehenengo pausoa. Horretarako, “2. Egoeraren azterketa” ataleko “2.3. Prozedura eta emaitzak” atalean deskribaturiko prozesua jarraitu da.

Behin ikasleen gustuak jakinda, gaiaren aukeraketari ekin zaio. Pauso honetan bi alderdi hartu dira kontuan, hots, gaia inkestan lortutako emaitzekin bat etortzea eta Lehen Hezkuntzako curriculumarekin lotura mantentzea. Horren hausnarketaren ondorioz, sortuko den album ilustratuaren gaia Euskal Mitologia izango dela erabaki da. Hala ere, gaia oso zabala da eta horretatik zertan zentratu aukeratu behar izan da. Horretarako, hainbat webgune kontsultatu dira eta Anbotoko Mari pertsonaia mitologikoa albumeko protagonista izango zela erabaki da.

Egia esanda, asmoa ez da izan jadanik idatzita existitzen zen kondaira bat album ilustratua bihurtzea; baizik eta, orain arte jorratu ez den zerbaiten albuma asmatzea. Hortaz, <http://www.ahotsak.eus/><sup>7</sup> webgunean topatutako bideoak entzun, eta horretan inspiratu da istorioa sortzeko. Modu berean, lizentzien kontua dela medio, web orrialde honetako arduradunarekin harremanetan jarri behar izan da bertan zeuden baliabideak zein modutan erabil zitezkeen jakiteko.

Behin istorioa asmatu, albumeko ilustrazioak burutu dira. Horretarako, ezinbestekoa izan da hurrengo aspektua kontuan hartzea: ilustrazioek hari narratiboa izan behar zuten, hau da, istorioa kontatu behar zuten. Eta azken pausoa, formatua hautatzea izan da.

---

<sup>7</sup> [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus/) Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri ezberdinetako hizkerak biltzen/ jasotzen eta hedatzen dituen web orrialdea da. Bertan, gaika antolatutako 35.556 bideo-pasarteak topa daitezke.

Proposamen didaktikoaren prestaketari erreparatuz, emandako lehenengo pausoa, bai marko teorikoa osatzean bai bestelako iturriak kontsultatzerakoan lortu diren jarduera interesgarrien bahetzea izan da. Bahetze horren ostean, Euskal Mitologiaren gaiarekin bat datozen ariketak aukeratu dira, baita horiek ikasleekin gauzatzeko segidak antolatu ere. Amaitzeko, saioak aurrera eramateko beharrezkoa izan den materiala sortu da.

### **3.4. Edukien, helburuen eta gaitasunen definizioa**

Aurreko paragrafoetan aipatu den bezala, proposamenak lotura zuzena mantendu behar du Lehen Hezkuntzako curriculumarekin. Atal honekin, proposamen honen bidez Heziberri 2020 planaren barneko 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15) izeneko dokumentutik zer eduki landu daitezkeen, zer helburu lor daitezkeen, eta zein gaitasun garatu daitezkeen azaldu nahi da. Horretarako, eta modu argiagoan aurkezteko asmoz, edukiak, helburuak eta gaitasunak taula batean batu dira, 6. eranskinean kontsulta daitezkeenak.

### **3.5. Proposamenaren atalak**

Proposamena osatzeko, “Anbotoko señoire” album ilustratua ez ezik, irakasleak irakurketa lantzeko saioak prestatu diraa, eta material hori lan honen 9. eranskinean dago. Album ilustratua eta honekin batera erabiltzeko sortu den liburuxka eskuragarri jarriko zaizkio irakasleari, bertan 5 saio azaltzen dira irakasleak ikasleekin album ilustratua lantzeko. Hurrengo lerroetan, atal bakoitzaren nondik norakoak deskribatuko dira, segidan aurkeztuko den informazioa osotasunean ulertzeko.

#### **3.5.1. Album ilustratua**

“Anbotoko señoire” album ilustratua lan honetarako konkretuki sortua izan da. 7. eranskinean album ilustratuak duen itxura kontsulta daiteke; hau da, ilustrazioen eta testuaren konbinaketaren emaitza. Horretarako, bi izan dira burutu beharreko zereginak: alde batetik, istorioa asmatzea eta bestetik istorioarekin bat zetozen irudiak pentsatu eta egitea.

Istoria<sup>8</sup> izenik gabeko mutiko baten eskolako egun arrunt batean oinarrizten da. Irakasleak ikasle baten jarrera ezkorragatik, Anbotoko señoire bere bila etorriko delako anekdota kontatzen duenean. Bitxikeria horretatik, pertsonaia mitologiko hori lantzen

---

<sup>8</sup> “Anbotoko señoire” album ilustratuaren istorio osoa 8. eranskinean irakur daiteke.

hasten dira, eta horretarako, irakasleak horri buruzko istorio bat kontatzen die. Istorio horretan, Anbotoko Mari nolakoa den, zer gustatzen zaion, non bizi den, eta horrelako beste datu batzuk ematen dira. Irakasleak istorioa kontatzen amaitzen duenean, gure protagonista gehiago jakiteko gogoz geratzen da, eta etxera heldu bezain laster, Mariri buruzko informazioa topatzen hasten da. Bertan, andereñoak esandakoaz gain, beste datu batzuk topatzen ditu, eta aitonarengana joaten da hori guztia egia dela ziurtatzeko. Hurrengo egunean, aitonak kontaturiko guztia esaten dio andereñoari, eta berak gainerako ikaskideei kontatzeko eskatzen dio. Istorioa gau ekaiztsu batekin amaitzen da, zeinetan protagonistak ezin duen lorik egin Anbotoko señoie bere bila etorriko den beldurrez.

### 3.5.2. Jarduera didaktikoak

Jarduera didaktikoak bi edukien inguruan bideratuta egongo dira: alde batetik, irakurketa eta idatzizko ulermena lantzekoak; eta bestetik, Anbotoko señoie pertsonaia mitologikoa jorratzekoak.

Horretarako, mota ezberdinetako ekintzak planteatuko dira. Irakurketa eta idatzizko ulermenari dagokionez, amaiera berriak sortu, istorioaren akatsak topatu, irudien bidez istorioa sortu, pertsonaien deskribapena, besteak beste, izango dira jarduerak. Halaber, saio bat bideratuko da Mari pertsonaia lantzeko. Horretarako, *lapbook*<sup>9</sup> izeneko baliabidea erabiliko da, zeinetan ikasleak albumean agertzen den Mariri buruzko informazio guztia islatu beharko dute, eta ondoren, ikaskideen aurrean aurkeztu.

Atal honekin amaitzeko, aipatzeko da, ariketak burutzen diren momentu orotan ikasleak paper aktiboa jokatuko duela. Bera izango da protagonista, ikaskuntza prozesua bideratuko duena, eta irakurketaren bidezko aurkikuntzaren bidea topatuko duena.

### 3.6. Interbentzioarako proposamena

Atal honetan, proposamena gauzatzeko aintzat hartu beharreko alderdi batzuk aurkeztuko dira, hots, plangintza, kronograma eta beharrezkoak diren baliabideak.

---

<sup>9</sup> Lapbook-a kartulinaz egindako euskarri didaktiko bat da, zabaltzen dena, eta gai oso baten erakusketa egiteko aukera ematen duena. Euskarri horretan, eskemak, argazkiak, irudiak eta ikasleekin komunikazioa errazten duen edozein gauza sar daiteke. Oro har, erreminta honen helburu nagusia ikasleekin gai oso baten lanketa burutzea da, betiere erraztasuna bilatuz (Hermoso de Mendoza, 2012). Lapbook-ak duen garrantzia harekin eta haren bitartez gai batek eskain dezakeen ezagutza guztia modu bakun, dibertigarria eta grafiko batean islatu daitekeela da, ikasleak kontura barik ikastea dakarrena (Meninheira, 2014).

### 3.6.1. Plangintza

Lehenik eta behin, esan beharra dago, proposameneko interbentzioa pentsatzeko orduan, ezinbestekoa izan dela inkestetan atera diren emaitzak aintzakotzat hartzea. Izan ere, horiek pistak eskaini dizkigute proposameneko jarduerak prestatzeko. Emaitza horiek “1. Egoeraren azterketa” ataleko “1.3. Prozedura eta emaitzak” kontsulta badaitezke ere, plangintzari begira, hurrengo kontsideratu behar dugu:

Inkestatutakoen % 89,3k, irakurketa gauza berriak ikasteko bide eraginkorra dela agertu du, kuriositatea, jakingura eta ezagutzak zabaltzeko. Horrez gain, irakurri ahala, irudiak imajinatzeko eta pertsonaiekin identifikatzeko erraztasuna adierazi dute, baina horretarako, istorioan zehar ez dira pertsonaia asko agertzen. Inkesten emaitzekin amaitzeko, gogoratu behar da, ikasleei eskaini zitzaizkien 14 gai ezberdinetatik, misterioa (23 punturekin), fantasia (21 punturekin) eta historia (21 punturekin) izan direla gairik hautatuenak.

Modu berean, Quintanalek (2000) *Actividades lectoras para la Escuela Infantil y Primaria* liburuan zerrendatzen dituen animaziorako estrategia baliogarriak suertatu zaizkigu proposamena bideratzeko. Estrategia horien artean, honako hauek erabili izan dira: inpregnazioa (irakurketarako testuinguru egokiak eratzekoak); entzute aktiboa (ikasleak arreta eta entzute aktiboa praktikatzekoak); aurkezpena estrategia (erabiliko diren album ilustratuak aurkeztekoak); irakurketa estrategia (irakurketa sakona, onuragarria eta analitikoa egitekoak); irakurketa ondoko estrategia (burututako irakurketa aprobetxatuz, umeengan interesa sorraraztekoak); sormenezko ariketak eta tailerrak (irakurketarekiko animazioarekin konbinatzen diren bestelako abileziak eta gaitasunak lantzekoak); jolasak (irakurketan zehar integratzen diren jolasak); sorkuntza eta birsorkuntza estrategia (ikaslea idazle, ilustratzaile edo editore bihurtzeko aukera eskaintzen da, betiere ikaslea motibatuzeko nahian).

### 3.6.2. Kronograma

Orain arte esandako guztia kontsideratuz, proposamenak 60 minutuko 5 saio izango ditu. Planteamendu hau, hilabete oso batean zehar, astero saio bat egiteko zuzenduta dago. Proposamena bere osotasunean, hiru atal nagusitan banatuta dago: irakurketa aurreko ariketak, irakurketa ariketak, eta irakurketa osteko ariketak. Lehenengoari dagokionez, proposameneko lehenengo saioan gauzatuko da. Bertan, album ilustratuak dituen elementuak aztertuko dira, eta ikasleek istorioaren lehenengo hipotesiak

adieraziko dituzte, baita paperean jaso ere (idatziz edo marrazkien bidez). Bigarren eta hirugarren atalak, ordea, gainerako saioetan zehar landuko dira, eta horien bidez, istorioaren argumentuaren ulermena ez ezik, Anbotoko Mari pertsonaia ere landuko da. Horretarako, mota ezberdinetako jarduerak prestatuko dira, betiere “Anbotoko señorie” album ilustratua baliabide nagusia dela. Amaitzeko, esan beharra dago, saio bakoitzean garatuko diren ariketak eta horien segida, 9. eranskinean kontsulta daitezke.

### 3.6.3. Baliabideak

Orain arte deskribatutako proposamena aurrera eramateko, hainbat izan dira erabili behar izan diren baliabideak. Jarraian, baliabide horiek zeintzuk diren aurkeztuko dira:

- Baliabide materialak: sortutako album ilustratua (bikote bakoitzeko bat); “Liburuko fitxa” izeneko fitxa; folioak, kartulinak eta aldizkariak; gelako materiala; eta sortutako *lapbook*-ak.
- Baliabide ekonomikoak: album ilustratuaren kostea.
- Giza baliabideak: irakasleak.
- Azpiegitura baliabideak: liburutegia (edo espazio zabala).

### 3.7. Ebaluazioa

Aurreko puntuan adierazi den bezala, saio bakoitza amaitutakoan, horren ebaluazioa burutuko da. Oro har, behaketa sistematikoan oinarritutako ebaluazioa gauzatuko da. Modu honetan, irakasleak saio bakoitzean esanguratsua den informazioa idatziz jasoko du, saioaren gogoeta ez ezik, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eman diren alde onen eta alde txarren gogoeta ere egiteko. Behaketa sistematikoan bilduko den informazio horren barruan, hurrengo aspektu hauek agertuko dira: ikasleen inplikazioa eta partaidetza; ikasleen arreta eta entzute maila; ikasleek egin dituzten loturak eta harremanak; eta, ikasleek aurkezten duten jarrera kritikoa.

Horrez gain, saio konkretu batzuetan, ikasleek sortutako lanak ere ebaluatuko dira; esate baterako, *lapbook*-a, eta istorioaren amaiera ezberdina. Halaber, proiektu guztia bukatutakoan, ikasleekin batera ebaluazio bat gauzatuko da. Horren bitartez, ikasleen ikuspegitik proiektuak izan dituen alde onak eta alde txarrak ezagutzea da, betiere emaitza horietatik proiektua hobetzeko asmoz. Horretarako, ikasle bakoitzari paperez egindako panpina gorria eta berdea banatuko zaio. Panpina berdean, proposamenetik gehien gustatu zaiena idatzi beharko dute; eta gorrian, berriz, gutxien gustatu zaiena. Ondoren, era anonimoan, horman itsatsiko dira eta guztion artean komentatuko dira.

Laburbilduz, ebaluazioa hiru alderdi hauetan oinarrituko da: zer ebaluatuko da? (ikasleen inplikazioa, partaidetza, arreta eta entzute maila, jarrera kritikoa, maila kognitiboan egiten dituzten loturak eta sortutako produktuak); nola ebaluatuko da? (behaketa sistematikoaren bidez); noiz ebaluatuko da? (liburutegietan burutzen diren saioetan zehar, eta saioak amaitutakoan gauzatuko da).

#### **4. Ondorioak**

Azken atal honetan, lanean zehar lekua izan duten hiru alderdien azken gogoetak aurkeztu nahi dira. Lehenenik, hasieran ezarritako helburua lortu den ala ez adieraziko da. Ondoren, helburu hori lortzeko definitu den egoeraren justifikazioa aurkeztuko da. Eta amaitzeko, etorkizunerako ildoen berri emango da.

Lan honen helburua irakurketa eta irakurzaletasuna sustatzea izan da, eta horretarako, diagnosia erabili da. Diagnosi fase hori burutzeko, ikasleen gustuak eta irakurketa ohiturak neurtzen dituen galdetegi bat pasatu da, Wigfield eta Guthrie autoreek (1997) egindakoa. Inkesta horren emaitzetatik, hiru ondorio nagusi atera ahal izan dira:

Alde batetik, ikasleek adierazi dute irakurketa atsegina dela, betiere jarduera hori oztopatzen duten trabak agertzen ez badira; hala nola, hitz zailak, pertsonaia askoren presentzia edota hizkera zaila. Bestetik, inkestaturiko ikasleek testuarekin konektatzeko trebezia aurkeztu dutela ondorioztatu genezake. Izan ere, irakurketan zehar, istorioari buruzko irudiak imajinatzeaz gain, bertan agertzen diren pertsonaiekin identifikatzeko erraztasuna dutela agertu dute. Hirugarrenik, ondorioztatu daiteke misterioa, fantasia eta historia direla ikasleen gairik gustukoena, horiek izan baitira ikasleek gehien hautatu dituztenak.

Hortaz, ondorio horiek eta inkestetatik bildutako informazioa aintzat harturik, hasieran zehazturiko xedea lortzeko album ilustratu bat sortu da. Baliabide honek aurkezten dituen ezaugarriak izan dira, hain zuzen ere, hori hautatzera eramane gaituztenak. Izan ere, bertan, irudiek eta testuak bat egiten dute eta elkarri laguntzen diote euren esanahia osatzeko. Alderdi hau oso interesgarria suertatu daiteke irakurketan hasi berri diren irakurleentzat; izan ere, irudiez baliatu daitezke testuan ulertzen ez dutenaren esanahia lortzeko. Gainera, horrek guztiak, irakurleak aktiboki parte hartzea ahalbidetzen duen heinean, irakurleak istorioaren eraikuntzaren protagonista bihurtzen dira.

Etorkizunera begira, interesgarria izango litzateke proposamena eskolara eramatea eta umeei nola hartzen duten aztertzea. Horretarako, ikasleen emozioak (nola sentitu



zara?), ikasleen jarrerak (nola aritu zara proiektuan zehar?), ikasleen lorpenak (zer ikasi duzu?) eta ikasleen asetasun maila (zer gustatu zaizu? Zer ez? Zer aldatuko/mantenduko zenuke?) neurtzen dituen galdetegi bat erabil daiteke proposamenaren baliagarritasuna zein den jakiteko eta horren inguruko hobekuntzak egiteko.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

### Liburuak eta testu elektronikoak

- Baker, L. & Wigfield, A. (1999). Dimensions of Children's Motivation for Reading and Their Relations to Reading Activity and Reading Achievement. *Theoretical Models and Processes of Reading (1- 45 or.)*
- Booker, K. (2007). *Using Picturebooks to Empower and Inspire Readers and Writers in the Upper Primary Classroom*. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, <http://www.alea.edu.au/documents/item/495> -tik.
- Bryant, S. (1995). *El arte de contar cuentos*. Barcelona: Biblaria.
- Colomer, T. (2007). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madrid: Síntesis.
- Durán, T. (2000). *¡Hay qué ver! Una aproximación al álbum ilustrado*. Salamanca: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Durán, T. (2008). *Aprendiendo de los álbumes*. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, [http://www.casadaleitura.org/portalbeta/bo/documentos/ot\\_aprendiendo\\_de\\_los\\_albumes\\_d.pdf](http://www.casadaleitura.org/portalbeta/bo/documentos/ot_aprendiendo_de_los_albumes_d.pdf) -tik.
- Eusko Jaurlaritzak. (2004). *NOLEGA*. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, <http://nolega.ulibarri.euskadi.eus/> -tik.
- Eusko Jaurlaritzak. (2004). *Ulibarri programa*. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, <http://www.ulibarri.euskadi.eus/> -tik.
- García, S. (2010). *Las mejores actividades de animación a la lectura*. 2016ko maiatzaren 15ean berreskuratuta, [http://web.educastur.princast.es/proyectos/abareque/web/index.php?option=com\\_k2&view=item&id=383:las-mejores-actividades-de-animaci%C3%B3n-a-la-lectura&Itemid=133](http://web.educastur.princast.es/proyectos/abareque/web/index.php?option=com_k2&view=item&id=383:las-mejores-actividades-de-animaci%C3%B3n-a-la-lectura&Itemid=133) -tik.
- Isaza, R. (d.g.). *El libro-fórum: un género nuevo*. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, [http://ifdvregina.rng.inf.d.edu.ar/sitio/upload/libro\\_album.pdf](http://ifdvregina.rng.inf.d.edu.ar/sitio/upload/libro_album.pdf) -tik.
- Jiménez, R.; Gómez, F.; Aguado, T. & Ballesteros, B. (2001). *Cuéntame: el cuento y la narración en educación infantil y primaria*. Madrid: UNED.
- Lockwood, M. (2011). *Promover el placer de leer en la Educación Primaria*. Humanes, Madrid: Morata.
- Mata, J. (2008). *Diez ideas clave de animación a la lectura*. Barcelona: Grao.

Mendoza, A. (2006). Las dos caras de la lectura: motivación y expectativas en el lector de literatura infantil. In P. Cerrillo (Ed.), *La motivación a la lectura a través de la literatura infantil* (9-24 orr.). Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia, Instituto Superior de Formación del Profesorado.

Moreno, V. (2007). *El deseo de leer*. Iruña (Pamplona): Pamiela.

OCDE (d.g.). *Comprensión lectora – Ejemplos de ítems*. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, [https://www.oecd.org/piaac-es/All%20Items\\_ESP.pdf](https://www.oecd.org/piaac-es/All%20Items_ESP.pdf) –tik.

Quintanal, J. (2000). *Actividades lectoras para la Escuela Infantil y Primaria*. Madrid: CCS.

Rosero, J. (2010). *Las cinco relaciones dialógicas entre el texto y la imagen dentro del álbum ilustrado*. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, [http://www.anniemate.com/ilustradorescolombianos/documentos/doc/LAS\\_CINCO\\_RELACIONES\\_DIALOGICAS-JOSE%20ROSERO.pdf](http://www.anniemate.com/ilustradorescolombianos/documentos/doc/LAS_CINCO_RELACIONES_DIALOGICAS-JOSE%20ROSERO.pdf) –tik.

### Aldizkariak

Blanch, S. & Durán, D. (2006). <<Read On>>, un programa escocés para la mejora de la lectura. *Aula. De Innovación Educativa*, (153).

### Legeak

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2016). *236/2015 Dekretua*, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15). 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_2\\_proyec/bigarren\\_egitasmoa.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/bigarren_egitasmoa.html) -tik.

Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. (2015). *Orden ECD/65/2015, de 21 de enero, por la que se describen las relaciones entre las competencias, los contenidos y los criterios de evaluación de la educación primaria, la educación secundaria obligatoria y el bachillerato*. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, <http://www.boe.es/boe/dias/2015/01/29/pdfs/BOE-A-2015-738.pdf> -tik.

Jefatura del Estado. (2006). LEY ORGÁNICA 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, <https://www.boe.es/boe/dias/2006/05/04/pdfs/A17158-17207.pdf> -tik.

### Webguneak

Badihardugu Euskara Elkartea. (2016). *Ipuinak, mitoak eta istorioak - Ahotsak.eus*. [online] Ahotsak.eus. 2016ko apirilaren 13an berreskuratuta, <http://www.ahotsak.eus/gaiak/030604/?page=2> –tik.

Orbis sensualium pictus. (2014, 11 de julio). *Wikipedia, La enciclopedia libre*. Fecha de consulta: 10:06, mayo 2, 2016 desde [https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Orbis\\_sensualium\\_pictus&oldid=755219](https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Orbis_sensualium_pictus&oldid=755219)